



# HAUSNARTU, EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

>>>

# 4

## NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOETAKO EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN ERAGITEKO OINARRIAK

Castillo Suárez García

*Euskara teknikaria*

Helbide elektronikoa: [info@castillosuarez.eu](mailto:info@castillosuarez.eu)

### SARRERA

Badira haien eguneroko lanean, eta, bidenabar, ematen duten zerbitzuan, euskara txertatu nahi duten toki administrazioak Nafarroan, eta horretarako plan bat egin. Alabaina, ez dago Nafarroako legediari egokitutako eredurik plan horiek egin ahal izateko. Bestalde, plana zehatza izanen bada, ezinbesteko da toki entitateen antolamendua eta funtzionamendua ezagutzea. Horiek horrela, lan honen helburua da plana diseinatzeko zenbait oinarri eskaintzea langintza horri ekin nahi diotenei. Gero eta erakunde gehiago ezarrita dituztela kalitatearen kudeaketarako sistemak eta horiek ere kontuan hartu dira.

### 1. Oinarri juridikoak

Foru administrazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak arautze lanak egin ditu Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoetan euskara normalizatzeko esparruan. Araugintzan egindako lanaren fruitu dira honako hauek:

## 1.1 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa

Foru lege honen 6. artikuluan “Aitortu egiten da herritar guztiak Administrazio Publikoetik harremanetan gaztelera nahiz euskara erabiltzeko eskubidea dutela”, hain zuzen, foru lege horrek ezarritako moduan. Horrela, eskubide hori mailakatu egiten da eremuaren arabera (eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna).

### a. Erabilpena eremu euskaldunean

“10. artikulua. 1. Herritar guztiak, Administrazio Publikoetik harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute. Horretarako eta eskubide honen mailaz mailako erabilpena bermatzeko, neurri egokiak hartuko ditu eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko.”

“15. artikulua. 1. Administrazio Publikoek eta izaera publikoko enpresek gaikuntza progresiboa sustatuko dute, eremu euskaldunean lan egiten duten langileek euskara erabil dezaten.

2. Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean.”

“16. artikulua. Eremu euskalduneko Toki Entitateek euskara erabiliko dute beren xedapen, argitalpen, hiriko kaleen errotulu eta tokien berezko izenetan, beti ere, ohikoak errespetatuz.”

### b. Erabilpena eremu mistoan

“17. artikulua. Herritar guztiak euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoetik zuzentzeko. Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatu Administrazioek honako hau egin dezakete:

Urteroko lanpostuen eskaintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea zehaztu.

Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskararen ezagupena merezimendutzat baloratu.”

### c. Erabilpena eremu ez-euskaldunean

“18. artikulua. Aitortu egiten da herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela. Azken hauek interesatuei gaztelararako itzulpena eska diezaiokete (...)”

## 1.2 Otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena

Foru dekretu honetan administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko baldintzak ezartzen dira.

---

**Lan honen helburua da plana diseinatzeko zenbait oinarri eskaintzea langintza horri ekin nahi diotenei. Gero eta erakunde gehiago ezarrita dituztela kalitatearen kudeaketarako sistemak eta horiek ere kontuan hartu dira.**

**Erabilpena eremu  
mistoan:**

**- Urteroko lanpostuen  
eskaintza publikoan zein  
lanpostutarako izanen  
den nahitaezko euskaraz  
jakitea zehaztu.**

**- Gainerako  
lanpostuetara iristeko  
deialdietan euskararen  
ezagupena  
merezimendutzat  
baloratu."**

**a. Euskara nahitaez jakitea eta euskara baloratzea lanpostuak bete behar direnean eremu euskaldunean**

*"18. artikulua. 1. Nafarroako administrazio publikoek, ebazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginen dagokien jakite maila adierazi beharko da.*

*2. Gero, hizkuntza eskakizun hori kasuan kasuko lan eskaintza publikoetan eta lanpostuen deialdietan adieraziko da.*

*(...)*

*4. Errespetatu egingen dira euskaraz jakitea etorkizunean nahitaezkoa izanen duten lanpostuak orain euskaraz jakin gabe betetzen dituzten pertsonen eskuraturako eskubideak. Betiere, euskara ikasteko prestakuntza ekintzarik antolatzen bada, nahi badute horietan parte hartzeko aukera eskainiko zaie."*

*"19. artikulua. Gainerako lanpostuak bete behar direnean, merezimenduzko lehiaketa bidez egiten bada, euskaraz jakitea merezimendu kualifikatutzat hartuko da, beste batzuen artean."*

**b. Euskara nahitaez jakitea eta euskara baloratzea lanpostuak bete behar direnean eremu mistoan**

*"22. artikulua. 1. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoak ez daude inolaz ere behartuta euskaraz jakitea nahitaezko kalifikatzaera beren plantilletako lanpostuak bete behar dituztenean<sup>1</sup>, euskara-gaztelania itzulpen lanekoetan izan ezik. (...)*

*2. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako administrazio publikoek, nahi badute, zehaztu ahaliko dute euskaraz jakitea, beste merezimendu batzuen artean, zein lanpostu zehatz eskuratzeko izanen den merezimendu beren oinarritzko administrazio zerbitzuetan. Hori arrazoituriko ebazpenaren bidez egin eta plantilla organikoan adierazi beharko dute."*

Toki administrazioari dagokienez, esan behar da ordenantzen bidez udal eta mankomunitateek arautzen dituztela beren eskumenekoak diren gaiak. Hortaz, udalen autonomiaren ondorioa dira; nolana ere, ordenantzak legearen menpekoak dira.

### **1.3 Euskararen ordenantzak**

Hainbat toki entitatek euskararen erabilera arautzeko ordenantzak onetsi dituzte. Batzuetan, aukera ematen da euskara hutsez jarduteko edota lehentasuna ematen zaio euskarari; besteetan, berriz, euskara eta gaztelania parekatzen dira.

Kontseiluak sustatutako Akordio Soziopolitikoak, Euskal Herriko zenbait alderdi politiko zein sindikalek osatua, euskararen ordenantza eredugarriak proposatu zituen 2007an toki entitateetako hizkuntzaren erabilera arautu eta bidenabar bizkortzeko xedearekin. Ordenantzetako

xedapenak eta epeak egoera soziolinguistikoaren arabera dira. Zehazkiago, 4 tipologia ezberdin bereizten dira.

## 2. NAFARROAKO TOKI ENTITATEEN ANTOLAMENDUA

### 2.1 Toki entitate motak

Udalerriak dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde antolamenduko oinarritzko toki entitateak, eta herritarrek afera publikotan parte hartzeko duten biderik funtsezkoena. Udalerriaren elementuak dira lurraldea, biztanleria eta antolamendua. Hain zuzen, udalerriaren antolamendua ohikoena udala da —bestea kontzeju irekiarena da, 100 biztanletik beherako udalerrietan—. Udala nortasun juridiko eta gaitasun osoaren jabe da, bere kabuz, bere kargura dituen zerbitzu publikoak kudeatu, eta bereak dituen interesen ordezkari izateko.

Udalez gain, honako hauek ere dute Nafarroako toki entitate izaera:

*Kontzejuak* udalaren dermioaren barrenean kokaturiko toki entitateak dira, hark baino biztanleria eta lurralde esparru gutxiago dutenak, ondasun eta nortasun juridikoaren jabe direnak beren interesak kudeatu eta administratzeko.

Foru lege bidez —zerbitzu administratiboak emateko batasunen kasuan izan ezik, horiek foru dekretu bidez sortzen ahal baitira— *udal batasunak* sor daitezke, udalak batzen dituzten entitateak alegia, haien ezaugarriengatik zerbitzuak guztiei komunean eskaintzea komenigarri suertatzen denean.

Nafarroako udalak beren artean *mankomunitatetan* elkar daitezke, obrak batera egin eta haien eskumenekoak diren zerbitzu jakin batzuk eskaintzeko. Mankomunitateek nortasun eta ahalmen juridikoaren jabe dira haien helburu berariazkoak betetzeko, eta beren estatutuen bidez arautzen dira. Mankomunitateen helburuen barrenean ezin izanen dira elkartutako udalen eskumen guztiak sartu.

Herri ondasunen jabe edo administratzaile diren *tradiziozko batasunek* zerbitzuak ematearen edo jarduerak burutzearen gaineko udal eskumen guztiak, delegazio bidez, bereganatzen ahalko dituzte. Honako hauek dira, besteak beste, tradiziozko batasunak: Zaraitzuko Ibxaren Batzordea, Erronkariko Ibxaren Batzordea eta Aezkoako Batzarre Nagusia.

### 2.2 Toki entitateek ezinbestek eman beharreko zerbitzuak

Hona hemen udalerriek eskaini beharreko gutxieneko zerbitzuak:

---

, EAEn Eusko  
Jaurlaritzaren 4.  
hizkuntza eskakizuna  
dago indarrean,  
Hizkuntzen Europako  
Erreferentzi Marko  
Bateratuaren C-2  
mailaren parekoa.  
Nafarroako Gobernuak,  
ordea, ez du araturik 3.  
jakite maila —EGA  
tituluaren baliokidea—  
baino goragoko hizkuntz  
eskakizunik, ez eta  
euskaraz lan egin behar  
duten teknikari  
gaituentzat ere.

*Egokiagoa irizten diogu  
hizkuntz eskakizun  
horiek Hizkuntzen  
Europako Erreferentzi  
Marko Bateria  
egokitzea, eta beste  
baliokidetzaren sistema bat  
ezartzea indarrean  
dauden beste  
ziurtagiriekin parekatzea  
errazagoa izan dadin.*

Ur Ur hornidura eta tratamendua	Udal guztiek ezinbestean eskaini beharreko zerbitzua
Estolderia	
Hiri hondakin solidoen bilketa, garraioa eta desagerraraztea	
Argiteria publikoa	
Kale eta bideen garbiketa	
Kale eta bideen zoruak	
Edari eta elikagaien kontrola	
Herri-gunerako sarbideak	5.000 biztanletik gorako udalerriek ezinbestean eskaini beharreko zerbitzua
Hilerria	
Parke publikoak	
Azokak	
Liburutegia	20.000 biztanletik gorako udalerriek ezinbestean eskaini beharreko zerbitzua
Hiri hondakin solidoen tratamendua	
Kirol azpiegiturak	
Gizarte zerbitzuak	
Suteen prebentzioa eta itzaltzea	
Babes zibila	
Bidaiarien garraio publikoa	
Ingurumena zaintzea	

### 2.3. Udalen antolaketa organoak

Udal guztiek honako organo hauek izanen dituzte:

Alkatetza	
Alkateordetza	
Udalbatza	
Tokiko Gobernu Batzarra	5.000 biztanletik gorako udalerrietan ezinbestekoa
Jarraipenerako batzorde informatzaileak	
Kontuen Batzorde Bereziak	

### 2.4. Nafarroako toki entitateen baliabideak

a) Tributuaz besteko baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berezko diru-sarrerak edo zuzenbide pribatukoak</li> <li>- Herri-lurren aprobetxamendua</li> <li>- Salneurri publikoak</li> <li>- Urbanizazio kuotak</li> <li>- Isunak</li> </ul>
b) Tributuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tasak</li> <li>- Kontribuzio bereziak</li> <li>- Zergak</li> </ul>
c) Estatuaren tributuetako partaidetza	
d) Nafarroako tributuetako partaidetza	
e) Diru-laguntzak	
f) Kreditu eragiketak	

## 2.5 Langileria

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileria hauexek osatuko dute:

- *Funtzionario publikoak* dira etengabeko izaeraz Nafarroako administrazio publikoei loturik daudenak.
- *Aldi baterako langileek*, bakarrik izendapen libreko kargu politikoak beteko dituzte edo kargu horiekiko eginkizunetan laguntza edo aholkua emanen, aldi baterako.
- *Kontratututako langileek* administrazio edo lan-araubideko kontratua izan dezakete.

## 2.6 Kontratazio publikoa

Tokiko kontratazioan 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu publikoei buruzkoa, jarraitzen da.

### Esleipen prozedurak:

- *Obra kontratuak*. Obra kontratua da entitate batek edo entitate-multzok (kontratatzailea) enpresaburu edo profesional batekin (kontratista) egiten duena, prestazio bat egin dezan, edo, bestela, proiektua eta prestazioak egin ditzan, prezio jakin baten truke.
- *Hornidura kontratuak*. Hornidura kontratua egiten da kontratistari produktuak eta ondasun higigarriak erosteko, errentan hartzeko edo finantza errentamendua egiteko.
- *Laguntza kontratuak*. Kontratistak zerbitzu bat egin behar du kontratatzailearentzat edo, kontratatzailearen kontura, hirugarren baten-tzat edo herritar guztientzat, prezio jakin baten truke.
- *Herri lanen emakidarako kontratuak*. Emakidadunari ordaintzeko, obra ustiatzeko eskubidea ematen zaio, edo, eskubide hori emateaz gainera, prezioa ordaintzen zaio.
- *Zerbitzuen emakidarako kontratuak*. Emakidadunari ordainetan zerbitzuen ustiapen ekonomikorako eskubidea ematen zaio, edo horrez gainera, prezioa ordaintzen zaio.

### Prozedura motak:

- *Prozedura irekia*. Interesa duten enpresaburu eta profesional guztiek aurkezten ahal dituzte beren eskaintzak.
- *Prozedura murriztua*. Administrazioak hautatzen dituen enpresaburu edo profesional bakarrak egingen zaie gonbita eskaintza aurkezteko.
- *Prozedura negoziatua*. Administrazioak kontratuaren baldintzak kontsultatzen eta negoziatzen ditu berak hautatutako enpresaburu batekin edo gehiagorekin, eta nahi duen eskaintza aukeratzen du, modu arrazoituan.

---

*Nafarroako Gobernuak  
195/1993 Foru  
Dekretuaren bidez,  
Nafarroako  
administrazioko langileek  
euskara ikastaroak  
egiteko ordu eta diru  
konpentsazioak arautu  
zituen – diru  
konpentsazioak  
eguneratu gabe daude  
harrezkero –. Toki  
entitate gehienek  
konpentsazio sistema  
hori bera jarraitzen dute.*

---

*Euskara Zerbitzuek  
prestatzen dituzte  
mankomunitateetako eta  
udaletako langileak  
euskara ikastaroak  
egiteko plangintzak.  
Plangintzen kostua  
Nafarroako Gobernuak  
hartzen du bere gain.  
Euskara Zerbitzuek  
plangintzaren segimendua  
egin eta toki  
entitateetako  
langileendako diru  
laguntzak kudeatzen  
dituzte.*

- *Lehia-elkarrizketa*. Prozedura horretan administrazioak hitz egiten du parte hartzeko eskatu dioten eta berak hautatu dituen enpresa eta profesionalekin. Elkarrizketa horretan lizitatzailerik administrazioaren beharrak asetzeko soluziorik egokienak eskaintzen dituzte, eta gero, soluzio horiek ikusirik, lizitatzailerik eskaintza aurkezteko gonbita egiten zaie.

## 2.7 Baimenak

Baimenak oro har alkateak ematen ditu, salbu legeek tokiko gobernu batzordeak edo udalbatzak ematea espresuki xedatzen dutenean.

- *Jarduera pertsonalei buruzko baimenak* edota tokiko ondarea erabiltzeari buruzkoak.
- *Hirigintza baimenak*. Baimena emateko beharrezkoa da aldeko txostena, idazkariarena edo dagokion teknikariarena.
- *Jarduera sailkatuetarako baimenak*. Aldez aurretik Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren txostena behar da. Txosten hori loteslea izango da baimena ukatzen den kasuetan edota neurri zuzentzaileak proposatzen direnean.

## 2.8 Araudiak, ordenantzak eta bandoak

Toki entitateek arautzeko ahalmena dute beren eskumenei dagokienez. Xedapen horiek araudi forma hartzen dute tokiko antolaketa eta funtzionamendua arautzeko xedea dutenean. Bestela, *ordenantza* forma hartu ohi dute. Batzuk eta besteak udalbatzak onetsi behar ditu, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira behin betikoz onetsi ondoren indarrean sartzeko. Bestalde, *bandoak* alkateak edo toki entitateko lehen-dakariak ematen ditu, eta aplikazio orokorrekoak izaten dira.

## 2.9 Zergak

Udalek derrigorrez ordainarazten dituztenak:

- *Lrren gaineko kontribuzioa*. Higiezinaren balioa zergapetzen du, eta haien katastro-balioan oinarritzen da.
- *Jarduera ekonomikoen gaineko zerga*. Jarduera ekonomikoak (enpresazkoak, profesionalak edota artistikoak) zergapetzen ditu, lokal batean burutu ala ez.
- *Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga*. Trakzio mekanikoa duten ibilgailuen titulartasuna zergapetzen du, edozein dela mota eta kategoria, baldin eta bide publikoetatik zirkulatzeko gai badira.
- *Eraikuntzak, instalazioak eta obren gaineko zerga*. Udal barrutian edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiten bada hura zergapetzen da; horretarako, aurrekontu osoa eta koste erreala kontuan hartzen dira.

- *Hiri lurren balioa handitzearen gaineko zerga.* Hiri lurrak transmititze-rakoan haien balioa igo bada, igoera hori zergapetu egiten da.

## 2.10 Kudeatzeko erak

Zerbitzu publiko lokalak zuzenean nahiz zeharka kudea daitezke.

### a) Zuzeneko kudeaketak forma hauetariko bat hartuko du

- *Toki entitateak berak kudeatzea.* Entitate lokalak berak burutzen duenean kudeaketa, bere ohiko organoen nahiz horretarako bereziki sortutako organoen bidez —izaera juridiko propioa ez dutenak— egin dezake.

- *Tokiko erakunde autonomoa.* Erakunde autonomoek, toki entitateek beren interesen kudeaketa deszentralizaturako sortzen dituztenak, berezko nortasun juridikoa eta ondare berezia dute. Beren estatutuen bidez arautzen dira.

- *Tokiko enpresa-entitate publikoa.* Tokiko enpresa entitate publikoak dira Nafarroako toki entitateek sortzen dituzten erakunde publikoak, zeinen esku uzten baita prestazio jarduerak egitea, zerbitzuak kudeatzea edo kontraprestazioa izan dezaketen interes publikoko ondasunak sortzea. Zuzenbide pribatuko arauak bete behar dituzte.

- *Merkataritza-sozietatea* zeinaren kapital soziala oso-osorik izanen baita toki entitatearena edo haren erakunde publiko batena. Merkatal sozietateak aplikagarri zaizkien zibil, merkatal edo lan arauteriarri lotuko zaizkio.

### b) Zeharkako kudeaketan honako forma hauek sartzen dira

- *Kontzesioa.* Kontzesio administratiboan entitate lokalak zerbitzu publiko bat bere kargura ezartzeko ardura ematen dio partikular edo entitate bati. Esleipen hartzaileak bere kabuz burutu beharko du zerbitzuaren kudeaketa.

- *Kudeaketa interesatua.* Kudeaketa interesatuaren bitartez, partikularrak edo enpresariak ematen du zerbitzua. Entitate lokalak ustiapenaren emaitza oso-osorik hartzen du bere gain edo kudeatzailearekin banatzen du kontratuak ezarritakoaren arabera.

- *Errentamendua.* Zerbitzu ematea entitate lokalen instalakuntzetan burutzen baldin bada, errentamenduan jartzen ahalko da, urteko kanon finko bat ezarriz. Errentariari dagokio erabiltzaileen ekarpenak hartzea. Halaber, haren kontura izanen dira ustiapen gastuak eta zerbitzua zuzen funtzionatzeko behar diren konponketak

- *Ituna.* Toki entitateek zerbitzu ematea hitzartzen ahalko dute beste erakunde publiko zein pribatuekin baita partikularrekin ere, haiek ezarrita dauzkatenak erabiliz, zerbitzu osoarengatik nahiz unitateen edo egintzengatik, alde zuzenetik paratutako prezio aldaezin baten ordainketaren truke.

---

*Hizkuntza eskakizunak banaka ezarriko dira, hain zuzen, langile bakoitzak organigraman non kokatzen den eta administratuarekin zein harreman dituen kontuan hartuz. Horrela, baloratuko da langile horrek zein eragin duen administratuak aukeratutako hizkuntza erabiltzeko eskubide gauzatzekoan.*



### **3. HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO NEURRIAK**

#### **3.1 Hizkuntz eskakizunak**

203/2001 Foru Dekretuak, uztailearen 30ekoak, agertzen du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleenak kanpo direla) eta zer jakite maila behar duten, eta zehazten du zein lanpostutan hartu behar den euskara jakitea beste batzuen arteko merezimendutzat. Foru dekretu horretan hiru jakite maila zehazten dira, eta jakite maila horiei dagozkien baliokidetzak ezarri:

- 1. jakite maila (mintzamenean 4. maila eta idazmenean 3. maila). Baliokidea: lau kurtso gainditurik izatea hizkuntz eskola ofizial batean, edo bederatzi urrats gainditurik Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan.
- 2. jakite maila (mintzamenean 5. maila eta idazmenean 3. maila). Baliokidea: hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat.
- 3. jakite maila (mintzamenean 5. maila eta idazmenean 5. maila). Baliokidea: hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat.

Jakina denez, EAEn Eusko Jaurlaritzaren 4. hizkuntza eskakizuna dago indarrean, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren C-2 mailaren parekoa. Nafarroako Gobernuak, ordea, ez du araturik 3. jakite maila —EGA tituluaren baliokidea— baino goragoko hizkuntz eskakizunik, ez eta euskaraz lan egin behar duten teknikari gaituentzat ere.

Haatik, egokiagoa irizten diogu hizkuntz eskakizun horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzea, eta beste baliokidetzat sistema bat ezartzea indarrean dauden beste ziurtagiriekin parekatzea errazagoa izan dadin:

Proposamena	Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria (HEEMB)	
1. hizkuntz eskakizuna	B-1	Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen de lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritziak labor-labor arazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko.
2. hizkuntz eskakizuna	B-2	Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoena ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hitzuneekin mintza daiteke, jarioitasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorreari buruzko ikuspegi jakin bat aldeztuko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.
3. hizkuntz eskakizuna	C-1	Gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituei antzemateko. Badaki jarioitasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.

Hizkuntz eskakizuna kreditatzeko bi modu egon daitezke: bata agiria, hizkuntza eskola ofizialeko gaitasun agiria edo balioidea, —honek balio-ko luke 1., 2. eta 3. hizkuntz eskakizunak kreditatzeko—; edo, hori ezean, hizkuntz eskakizuna egiaztatuko duen euskarazko proba egin beharko da.

Proposamena	HEEMB	Hizkuntza eskola ofizialen agiriak	Nafarroako Gobernuaren agiriak
1. hizkuntz eskakizuna	B-1	Tarteko maila	
2. hizkuntz eskakizuna	B-2	Maila aurreratua	
3. hizkuntz eskakizuna	C-1		EGA

Aholkatzen da hizkuntz eskakizuna lanpostuaren mailaren arabera esleitzea; hona:

Hizkuntz eskakizuna	Langilearen maila
1. hizkuntz eskakizuna	E
2. hizkuntz eskakizuna	D
2. hizkuntz eskakizuna	C
3. hizkuntz eskakizuna	B
3. hizkuntz eskakizuna	A

### 3.2 Langileen euskalduntze-alfabetatzea

Nafarroako Gobernuak 195/1993 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako administrazioeko langileek euskara ikastaroak egiteko ordu eta diru kon-

pentsatzioak arautu zituen —diru konpentsazioak eguneratu gabe daude harrezkero—. Toki entitate gehienek konpentsazio sistema hori bera jarraitzen dute:

- Ikastaro estentsiboak - Autoikaskuntza - Mintza gidatua	Erdia lan orduen kontura eta beste erdia langilearen kontura
- Ikastaro trinkoak - Teknikoak - EGA	Lan orduen kontura
- Udako ikastaro trinkoak	13egun lan orduen kontura eta 7 langilearen kontura
- Barnetegiak	7 egun lan-orduen kontura eta 3 langileen kontura

Euskara Zerbitzuek prestatzen dituzte mankomunitateetako eta udale-tako langileak euskara ikastaroak egiteko plangintzak. Plangintzen kostua Nafarroako Gobernuak hartzen du bere gain. Euskara Zerbitzuek plangintzaren segimendua egin eta toki entitateetako langileendako diru laguntzak kudeatzen dituzte. Hala ere, esan behar da gero eta udal gehiago direla plangintza horiek hein batean haien funtsetatik ordaintzen dituztenak, dirua gero eta gutxiago eta gero eta beranduago iristen baita toki entitateetara.

Euskalduntze-alfabetatze plangintzetarako honako irizpide hauek proposatzen dira lehentasunak erabakitzeko:

- Langilearen hizkuntz eskakizuna.
- Langilearen lan-egoera.
- Langilea kokatua dagoen unitatearen nolakotasuna.
- Langileak administratuarekin duen harreman mota.
- Aurreko ikasturteetan langileak izan duen aprobetxamendua.

### 3.3 Unitate administratibo elebidunak

Hona unitate administratiboenen sailkapenerako proposamena:

- *Jendaurreko unitateak*. Unitate hauek harreman zuzena dute administratuarekin, bai ahoz eta bai idatziz. Gisa honetako dira gero eta zabalduago dauden herritarrentzako laguntza bulegoak.
- *Gizarte izaerako atalak*. Atal hauetan bereziki lantzen dira gizarte izaerako gaiak: berdintasuna, kultura, gazteria, hezkuntza...
- *Atal orokorrak*. Atal hauek bereziki administrazio barrukoak dira, eta ez dute harreman zuzenik herritarrekin.

Legeek herritarrei aitortzen dizkieten hizkuntza eskubideak bermatzeko, ezinbestekoa da toki entitateek unitate administratibo elebidunak

izatea. Unitate elebidunak bai zerbitzu hizkuntza (administratuarekin erabili ohi den hizkuntza, ahoz zein idatziz) eta bai lan hizkuntza (lanpostuari dagozkion zereginak burutzeko erabiltzen den hizkuntza, ahoz zein idatziz) gaztelania zein euskara dituzten atalak dira. Normalizazio planen funtsetako bat litzateke unitate horiek izendatzea. Areago, lehen-tasunezkoa litzateke toki entitateetan dauden unitateen artean jendaurrekoak eta gizarte izaerakoak elebidun bilakatzea.

Unitate bat elebiduna izan dadin, unitatea osatzen duten lanpostu guztiek edo gehienek hizkuntza eskakizuna beharko dute. Beraz, hizkuntza eskakizunak ezartzerakoan, ezinbestekoa da lanpostu horiek zein unitate motatakoak diren kontuan hartzea.

Udalerriaren egoera soziolinguistikoarengatik gaitza balitz unitate oso bat elebidun izendatzea, hizkuntza eskakizunak banaka ezarriko dira, hain zuzen, langile bakoitzak organigraman non kokatzen den eta administratuarekin zein harreman dituen kontuan hartuz. Horrela, baloratuko da langile horrek zein eragin duen administratuak aukeratutako hizkuntza erabiltzeko eskubide gauzatzekoan.

Normalizazio planen xedea litzateke lanpostu horiek betetzen dituzten langileek hizkuntza dagokien hizkuntz eskakizunak betetzea. Nolanahi ere, aipatu behar da Nafarroako legeetan ez dagoela hizkuntz eskakizunen derrigortasun datei buruzko aipamenik.

### 3.4 Lan-jardunen euskalduntzea

Toki administrazioan euskararen erabilera areagotzeko ez da nahikoa langileak gaitzea. Horrez gain, edo horren gainetik, lortu beharko litzateke langileek euskaraz lan egitea itzulpenetara jo behar izan gabe. Beraz, lehentasunezkoa litzateke euskaraz ere sortzea balio komunikatiborik handiena duten lan jardunak, hau da, zabalkunderik handiena dutenak. Eusko Jaurlaritzaren euskararen erabilera normalizatzeko IV. planean, hain zuzen, azpimarratzen da lan-jardunen azterketa komunikatiboa egin behar dela erabakitzeke zeintzuk izango diren euskaraz ere landuko diren komunikazioak. Horiek horrela, eragin handiko komunikazioen artean honako hauek aipatzen dituzte:

- + Maiztasun handikoak (behin eta berriro errepikatzen direnak).*
- + Zabalkunde handikoak (leku eta lagun askorengana heltzen direnak).*
- + Idazki askotarako oinarri direnak (dekretuak...).*
- + Aplikazio informatikoetan sartuko direnak.*
- + Sailaren irudi korporatiboan eragina dutenak"*

### 3.5 Hizkuntza gaitasuna hobetzera eta erabilera areagotzeko baliabideak

Normalizazio plan bat aurrera egin dezan, beharrezkoak dira baliabideak:

a) Hizkuntza gaitasuna hobetzera bideratutakoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskalduntze-alfabetatzea (aurrez aurreko metodo nahiz autoikaskuntza metodoen bidez)</li> <li>- Administrazio hizkeraren gaineko prestakuntza</li> </ul>
b) Erabilera areagotzekoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Trebakuntza (laguntza espezifikoa, langileari bere eginkizunak euskaraz burutzen irakasteko)</li> <li>- Erabilera taldeak/hobekuntza taldeak (entitateko langileek osatutako lan-taldeak)</li> </ul>

#### 4. KALITATEAREN KUDEAKETA

Gero eta erakunde gehiagotan ari dira kalitatearen kudeaketarako sistematik ezartzen bai efikazia (helburuak lotzarekin atera) eta efizientzia (baliabideen erabilerarekin harremana duena) bermatzeko. Horiek horrela, hainbat eredu daude (ISO, EFQM, CAF...) erakundeen bikaintasuna lortzera bideratuak. Eredu horiei loturik hainbat metodologia eta tresna sortu dira, oso baliagarriak izan daitezkeenak administrazio publikoetan, eta, zehazkiago, normalizazio planetan.


##### 4.1 Administrazio publikoetarako CAF eredua

Administrazio Publikoaren Europako Institutuak CAF (*Common Assessment Framework*) ereduaren ezarpena sustatzen ari da. Estatu Espainiarrean Administrazio Publikoen Ministerioa eta Nafarroan Nafarroako Administrazio Publikoen Institutua ari dira zabalkunde lanetan.

CAF eredua EFQM ereduan dago oinarrituta —autoebaluazioan, beraz—, eta alor publikoan kalitatearen kudeaketari sarbidea emateko dago diseinatu. EFQMk bezala, CAFek 9 irizpide erabiltzen ditu erakundearen egoera ezagutzeko eta hobekuntzak egiteko; hona: 1) Lidergoa, 2) Giza baliabideak, 3) Estrategia eta planifikazioa, 4) Aliantzak eta baliabideak, 5) Prozesuen eta aldaketaren kudeaketa, 6) Emaitzak pertsonengan, 7) Emaitzak bezeroengan/herritarrengan, 8) Emaitzak gizartean eta 9) Emaitza gakoak. Lehendabiziko bost irizpideak erakundearen eragile erraztaileak dira, eta zehazten dute zer egiten duen erakunde batek espero dituen emaitzak izateko. 6tik 9ra bitarteko irizpideak, berriz, emaitzei buruzkoak dira. 9 irizpide horiek 28 azpi-irizpidetan banatzen dira.


1) Lidergoa, 2) Giza baliabideak, 3) Estrategia eta planifikazioa, 4) Aliantzak eta baliabideak, 5) Prozesuen eta aldaketaren kudeaketa, 6) Emaitzak pertsonengan, 7) Emaitzak bezeroengan/herritarrengan, 8)

## Emaitzak gizartean eta 9) Emaitza gakoak




### 4.2 Balanced scorecard edo Gida panel integralaren eredua

Sistema honen bidez, modu argi eta oso batean ematen zaigu erakunde baten egoera hura hobetu ahal izateko. Sistema honetan helburu estrategikoak, adierazleak jarduerak eta jomugak lau multzo nagusitan antolatzen dira: 1) Bezeroak, 2) Finantzak, 3) Formazioa eta hazkundea eta 4) Barne prozesuak. Bezeroa, alor publikoan, herritarra litzateke bai barruko (langilea) edo kanpoko (erabiltzailea, onuraduna edo zergaduna).




Soziolinguistika Klusterrean eredu hau haien ezaugarrietara moldatu dute, lau multzo nagusitan antolatzen dira helburu estrategikoak, adierazleak, jarduerak eta jomugak: 1) Erabiltzaileak eta komunitatea, 2) Balia-bideak (pertsonak eta finantzak), 3) Garapena eta 4) Barne prozesuak.



2007-2009 urte bitarteko Soziolinguistika Klusterraren egitasmo estrategikoan zehazten dira eredu honen aplikazioaren nondik norakoak:

“Eredu horren arabera, abiapuntua ikuspegi estrategikoa definitzea izango da. Hori egin ostean, helburu estrategikoak definituko dira lau mailatan banatuta. Helburu estrategiko bakoitzaren garapena neurtzeko zein adierazle erabiliko ditugun finkatuko dugu jarraian eta, azkenik, helburu horiek gauzatzeko burutuko ditugun jarduerak. Hori daukagula, urteko planak zehaztuko ditugu, adierazle bakoitzarekiko urtean lortu nahi ditugun jomugak edo emaitzak aurreikusiz.

Egitasmo estrategikoaren funtsa, ikuspegi estrategikoa zehaztea, ikuspegi hori kudeaketarekin lotzea, eta eguneroko ekintza operatibo bihurtzea da. Horrela, eta ekintza operatiboak burutu ahala, ikuspegi estrategikoan zehaztutako xedetara hurbiltzen joango gara, beti ere, egindakoari buruzko neurketak egiten badira eta hobekuntza sistemak ezartzen badira.” ■



## BIBLIOGRAFIA

### Legedia

- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa  
([www.lexnavarra.navarra.es](http://www.lexnavarra.navarra.es))
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Toki Administrazioari buruzkoa  
([www.lexnavarra.navarra.es](http://www.lexnavarra.navarra.es))
- 195/1993 Foru Dekretua, ekainaren 21ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek euskarazko ikastaroak egiteko, ordu eta diru konpentsazioak eguneratzen dituen (www.lexnavarra.navarra.es)
- 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena (www.lexnavarra.navarra.es)
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa (www.lexnavarra.navarra.es)
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena (www.euskadi.net)
- 21/1998 Erabakia, urriaren 27koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1998-2002 aldirako Plana onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluko Akordioa argitara dadila agintzen duena (www.euskadi.net)
- 203/2001 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa. Agertzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleenak kanpo direla) eta zer jakite maila behar duten, eta zehazten du zein lanpostutan hartu behar den euskara jakitea beste batzuen arteko merezimendutzat (www.lexnavarra.navarra.es)
- 29/2003 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duena (www.lexnavarra.navarra.es)
- 15/2004 Ebazpena, abuztuaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko 2003-2007 aldirako Plana onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluko akordioa argitaratzeko dena (www.euskadi.net)
- 11/2004 Foru Legea, urriaren 29koa, Nafarroako toki araubidea gaurkotzekoa (www.lexnavarra.navarra.es)
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu publikoei buruzkoa (www.lexnavarra.navarra.es)



- Erabakia, 2006ko irailaren 18koa, Nafarroako Gobernuak hartua, euskarari buruz zenbait neurri hartzen dituena  
([www.lexnavarra.navarra.es](http://www.lexnavarra.navarra.es))
- 64/2008 Dekretua, apirilaren 8koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzea.  
([www.euskadi.net](http://www.euskadi.net))
- 9/2008 EBAZPENEA, Jaurlaritzaren 2koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako Eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak «IV. Plangintzaldirako (2008-2012) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzeko» hartutako erabakia argitaratzeko dena ([www.euskadi.net](http://www.euskadi.net))

### **Eskuliburuak**

- Camisión, César & Cruz, Sonia & González, Tomas (2007): *Gestión de la calidad: conceptos, enfoques, modelos*. Pearson educación. Madril.
- Nafarroako Gobernuo Toki Administrazio Departamentua: *Manual para concejales* ([www.cfnavarra.es](http://www.cfnavarra.es))
- Nafarroako Gobernuo Nafarroako Administrazio Publikoen Institutua (2205): *Guía de calidad y mejora en las administraciones públicas*. Nafarroako Gobernuo Argitalpen Fondoa. Iruñea.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa: *Curso sobre administración local para nuevos corporativos* ([www.fnmc.es](http://www.fnmc.es))

### **Bestelakoak**

- Euskara sustatzeko eta Euskalgintza babesteko Akordioa Soziopolitikoak: *Euskararen ordenantza eredugarriak* ([www.kontseilua.org](http://www.kontseilua.org))
- Europako Kontseilua: *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako erreferentzi marko bateratua* ([www.habe.org](http://www.habe.org))
- Soziolinguistika Klusterra: *Egitasmo estrategikoa 2007-2009* (argitaratua gabea)

## **OHARRA**

1. Eremu mistoan lanpostu zehatz baterako euskaraz jakitea nahitaezko kalifikatzen denean, Foru Dekretu honen 18. artikuluko 4. idatz-zatian ageri diren xedapena aplikatuko da.